

Etxeko ariketa 1

Noizko: urriaren 10rako, ostegunez, arratsaldeko 15:00 baino lehen emateko.¹

1. Har itzazu zeuk nahi dituzun euskal gramatika liburu bitako pasarteak (bakoitza hiruzpalau lerrokoa); bata hizkuntza ikuspegi sortzailetik (barne hizkuntzaren ikuspegitik) aztertu beharko luke eta besteak kanpo hizkuntzaren ikuspegitik. Kasu batean eta bestean justifika ezazu, pasarte bakoitzean oinarrituz, zertan igartzen den egileak duen ikuspegia. (2.5 p)

2. Egin ezazu ondo perpausen arbola diagrama, modu ahalik eta zehatzenean (2 p.):

- (1)
- a. Borisek eta Irinak bata(k) bestea traizionatu zuten.
 - b. KGBko agenteak bere burua traizionatu zuen.
 - c. KGBko agenteak KGB traizionatu zuen.
 - d. KGBk agenteak bera traizionatu zuela sinetsi zuen
 - e. Bordak eta Jaiok elkarrekin nobela bat idatzi dute.

3. Azaldu ezazu Uztarduta Teoriaren hatsarreek zein interpretazio behartzen duten goiko (1a-e) perpausetan; hau da, azaldu determinatzaile-sintagma bakoitza zeren indizekidea den edo izan daitekeen, kasuaren arabera (2.5 p.).

4. Azaldu (1d-e) perpausetan zein den *bera* eta *elkar* determinatzaile-sintagmen Eremu Hurbila, eta horren azalpen labur bat eman (1 p.).

5. Azaldu ezazu honako perpausak zergatik diren ezgramatikalak (hots: zein hatsarre urratu den, eta zertan urratu den) (2 p.):

- (1)
- a. *Berak_i Lauaxeta_i hil zuen.
 - b. *Lauaxetak_i bera_i muxukatu zuen.
 - c. *Elkarrek_{i,j} Jon_i eta Ane_j maite zituen.

● Ariketa emateko argibideak:

- a. perpausen arbola-diagramak ez beste testu guztiak ordenagailuz idatzita egon behar du;
- b. perpausen arbola-diagramak ere ordenagailuz egitea gomendatzen da. Ikus honetaz eGela-n eskegita dauden oharra (Sintaxi arbolak egiteko balabideak eta moduak izenburupean).

¹ Ariketa eGela plataformaren bidez bidal daiteke (*fitxategia igo* funtzioaren bitartez), edo bestela eskolaren hasieran eman dakioko irakasleari.